



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023ko ABUZTUAREN 31ko EBAZPENA, 2023/24ko IKASTURTERAKO GARBIKETA ETA SUKALDARITZAKO PERTSONALAREN ZERRENDA BATZUK ZUZENTZEN DITUENA.

GERTAKARIAK

Lehena.- Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2023ko uztailaren 4ko ebazpenaren bidez argitara eman ziren 2023/24ko ikasturterako garbiketa eta sukaldaritzako lan-legepeko Kolektiboan behin-behineko eta bitarteko pertsonalaren behin-betiko zerrendak.

Bigarrena.- Egiaztatu denez, garbiketa eta sukaldaritzako zenbait zerrendatan akats material hauek agertzen dira:

- Bizkaiko garbiketako zerrenda: M^a del Mar Turiño Turiño 6581 egunekin agertzen da.
- Bizkaiko garbiketako zerrenda: akatsa dela eta Idurre Goikoetxea San Nicolas ez da agertzen.
- Bizkaiko garbiketako zerrenda: akatsa dela eta Urtza Garay Olaeta ez da agertzen.
- Bizkaiko garbiketako zerrenda: akatsa dela eta Ixone Gobantes Abrisqueta ez da agertzen.
- Gipuzkoako garbiketako zerrenda: akatsa dela eta Idoia Zabala Basauri ez da agertzen 581 egunekin.
- Bizkaiko sukaldaritza zerrenda: Galder Carbajosa Atxiaga 766 egunekin agertzen da.
- Bizkaiko sukaldaritza zerrenda: akatsa dela eta Ander Lobato ez da agertzen 703 egunekin.
- Bizkaiko sukaldaritza zerrenda: akatsa dela eta Lilliam Beatriz Rivas Barrera ez da agertzen 243 egunekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bakarra.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 105. artikulua 2. puntuan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoek izango dute edozein unetan, ofizioz edo aldean eskariz, beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak zuzentzeko aukera.

Akats materialaren definizio hau eman dezakegu: gertaera edo gauza bati buruzkoa akats oro, hots, iritziekin, irizpide partikularrekin edo kalifikazioekin inolako zerikusirik ez duen errealitate bati buruzkoa. Ondorengo puntuak, ordea, akats materialaren esparrutik at geratzen dira: zalantzarik gabeko gertakarien garrantzia baloratzeari buruzko guztia, proben legezko balorazioa, legezko xedapenen interpretazioa eta ezarri ahal diren kalifikazio juridikoak.

Horren arabera, eta indarreko legeriak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz,

EBATZI DUT

Lehena. Zuzentzea 2023ko uztailaren 4ko ebazpenaren bidez argitara emandako zenbait zerrendatan dauden akats materialak. Horrela geratzen dira:

- Bizkaiko garbiketako zerrenda: M^a del Mar Turiño Turiño 7.015 egunekin agertzen da.
- Bizkaiko garbiketako zerrenda: Idurre Goikoetxea San Nicolas agertzen da.
- Bizkaiko garbiketako zerrenda: Urtza Garay Olaeta agertzen da.
- Bizkaiko garbiketako zerrenda: Ixone Gobantes Abrisqueta agertzen da



- Gipuzkoako garbiketako zerrenda: Idoia Zabala Basauri 581 egunekin agertzen da.
- Bizkaiko sukaldaritza zerrenda: Galder Carbajosa Atxiaga 839 egunekin agertzen da.
- Bizkaiko sukaldaritza zerrenda: Ander Lobato 703 egunekin agertzen da.
- Bizkaiko sukaldaritza zerrenda: Lilliam Beatriz Rivas Barrera 243 egunekin agertzen da.

Bigarrena. Egindako zuzenketekin zerrenda hauek argitara ematea:

Bizkaiko garbiketa	Bizkaiko sukaldaritza
Gipuzkoako garbiketa	

Hirugarrena. Garbiketa eta sukalde zerrenda guztiak argitaratzea, ebazpen honen datan lan-egoera eguneratuta.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 31

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA GUERRERO OCEJO